

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntza departamentuak ukatu egin du Hezkuntza hitzarmenaren negoziazioa aldebakartasunez apurtzea

Hezkuntza departamentuak argitu du negoziazioa ez atzera ez aurrera dagoela zuzeneko irakaskuntza orduen murrizketa berehalakoa izatea marra gorritzat jo baitute sindikatuek

Ostirala, 2018.eko otsailak 16

la urtebete igaro denean, Hezkuntza departamentuak gaur goizeko Mahai Sektorialean adierazi du benetako zailtasunak daudela Hezkuntza Hitzarmena bermeekin negoziatzen jarraitzeko. Hilabete luzez elkartu da Departamentua sindikatuekin euren proposamenak jaso eta aztertzeko, beti ere hitzarmen



Hezkuntza departamentuko klaustroa.

borradore bat proposatzeko urteetan Nafarroako irakasleek bizi duten murrizketa egoerari eta lan eskubideen nahiz eros ahalmen galerari erantzun ahal izateko. Hezkuntza departamentuak, horregatik, irakasleen lan baldintzak argiki hobetzen dituen proposamena luzatu die sindikatuei, baina, hala ere, ez ditu euren itxaropenak asebate.

Prozesu horretan, kontsentsu zabala lortu da hitzarmenaren borradorean jasotako puntu askotan. Baina, puntu batean izandako desadostasunak negoziazioa aurrera biderik gabe utzi du; irakaskuntza zuzeneko ordu kopuruan atzera egiteko puntuan, zehazki.

Hezkuntza departamentuak Mahai Sektorialari aurkeztutako borradorean proposatzen du Haur eta Lehen Hezkuntzan zuzeneko irakaskuntza 2 ordu jaistea 2018/19 ikasturtean (23 sesiotara) eta DBHn bi ordu jasitean 2020/21 ikasturtean (18 sesiotara jaitsiera). Neurri hauek urtero 5 milioi euro lirateke Haur eta Lehen hezkuntzan, 132 aldi baterako irakasle kontratatzeke, eta 15 milioi urtero Bigarren hezkuntzan, 351 irakasle kontratatzeke; urtero, beraz, 20 milioi Nafarroako aurrekontuetan.

Aipatutako aurrekontuari beste zailtasun bat gehitu behar zaio, aldi baterako kontratazioarekin lotutakoa, oraingoaz, eta gobernu zentralak konpondu ezean, saihestezina. Prozesuan zehar askotan azaldu dira ordu murrizketak gauzatzeko neurriak eta horren ondorioz egin beharreko kontratazioak gehitzeko dagoen zailtasuna, ezarri duen behin behinekotasun tasa %8ra jaitsi nahi baitu Espainiako gobernuak.

Egonkortzeko lan eskaintza publikoa egin nahi denez datozen 3 urtetan, Departamentuak ez du bideragarri ikusten murrizketak lehengoratzea proposatutako epeetan ez bada. Sindikatuek ez dute onartu nahi izan proposatutako egutegia; Departamentuak salatu egin du “dena edo batere” defendatu dutenen jarrera.

Hezkuntza departamentutik adierazi dute, gaur egun, ez direla beharrezko baldintzak ematen berme guztiekin akordio batera heltzeko. Aldiro jarri da mahai gainean Departamentuaren negoziatzeko borondatea, maniobratzeko tarte errealarekin, hitzartutakorekin betetzeko borondate irmoz, 2007-2011 hitzarmena bete ez zela gogoratuz eta 7 urte direla, dagoeneko, inolako hitzarmenik ez dagoela mahai gaineratuz.

Dena den, Hezkuntzak Mahai sektorialari adierazi dio murrizketak lehengoratzen jarraituko duela, akordioarekin ala gabe, eta negoziazio prozesua aberasgarria izan dela sindikatuen iritzia eta proposamenak ezagutzeko. Horren adierazle dira, esaterako, akordioan jaso direnako puntu asko dagoeneko aurtengo aurrekontuetan jaso izana eta indarrean jarri izana: 320.000 euro hezkuntza berrikuntzan; 1.030.000 euro irakasle taldeak egonkortzeko; 1,8 milioi aniztasuna eta hezkuntza behar bereziak artatzeko; 1,2 milioi euro irakasleen formazioan; 3,1 milioi euro lanbide heziketaren garapenean; eta ordezkapenentarako irizpideak, eskubide sindikalen hobekuntza nahiz irakasle gehiagoren kontratazioa Haur eta Lehen Hezkuntzan 2015/16 ikasturtetik indarrean jarritako neurria ratioen jaitzierari esker.